



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2010/2011 denboraldia

10 ZK.DUN ZIRKULARRA

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Euskal Gazte Liga lehiaketa antolatuko du 2010/11 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko dute klubak

Abetxuko A.C.D., Alaves D., Amorebieta S.D., Anaitasuna F.T., Antiguóko K.E., Aurrera de Vitoria C.D., Basconia C.D., Bergara K.E., Danok Bat C., Eibar S.D., Laudio C.D., Lengokoak S.D., Peña Athl. Santurtzi C.F., San Marcial R.U., Santutxu F.C. eta Zumaia F.T.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamar jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 12, 19 eta 26; urriaren 3, 10, 17, 24 eta 31; azaroaren 7, 14, 21 eta 28; abenduaren 5, 12 eta 19.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 9, 16, 23 eta 30; otsailaren 6, 13, 20 eta 27; martxoaren 6, 13 eta 27; apirilaren 3, 10 eta 17.; maiatzaren 1.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi zero bat jarri dala, beraz partiduak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etara bitartean jokatuak izan beharko dute, logikoki burrukatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Saikapen ondorioak

Saikapeneko 1, 2 eta 3. amaitzen direnak Gazteen Estatuko Ligara igoko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, sortzen diren hutsuneak betetzeko, saikapeneko hurrengo lekuetan dauden taldeak ere igoko dira maila horretara.

Saikapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitsiko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken saikapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute.

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren gertaturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzeko den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2010ko irailaren 3n.



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General